eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA
FACULTAD DE ECONOMÍA Y EMPRESA
SECCION GIPUZKOA

KONTROLA - 2024ko urriak 29
60 minutu

Izena-abizenak:______________________________

1. Beheko taulan **monopolista** baten salmenten datuak jaso dira.


   a) Zenbat balio du hirugarren esmeraldaren prezioak? Eta hirugarren esmeraldaren Sarrera Marjinalak? Zergatik dira ezberdinak? Azalpenak eman **(1,00 puntu)**

Esmeralda-unitateak	Sarrera Totalak (ST)
1	222
2	318
3	399
4	436

   b) Jarraian jasotako formulan balio egokiak ordezkatu SMA-ren balioa kalkulatzeko eta aurreko ataleko erantzuna era egokian justifikatzeko. **(0,50 puntu)**

$$SMa = \frac{\Delta P(Q)}{\Delta Q} \cdot Q + P(Q)$$

   c) **Eskari-puntuen** grafiko baten bidez baliatuz era egokian justifikatu zure azalpena. **Ilundu** azalera egokiak zure grafikoan. **(1,00 puntu)**



2. Lehia perfektuko merkatu batean eskari funtzioa D:Q^d **= 320 – 5P** da. Eskaintzaren aldetik **80** enpresa berdin daude eta bakoitzaren kostu osoak **KT = $2q^2$ + 4q +16** dira.

   a) Kalkulatu enpresa bakoitzaren **eskaintza-funtzioa, q^S**. Argi adierazi **itxiera-maila (1,75 puntu)**.


   b) Kalkulatu merkatuko-oreka eta enpresa bakoitzaren salmentak eta mozkinak **(1,75 puntu)**.

3. Monopolista baten kostu-funtzioa honakoa da: **KT= Q^2 – 8Q + 4.536**. Ekoizten duen ondasunaren merkatu-eskaria, berriz, hauxe da: **D: P^d = 442 – 8Q** (**2 hamartar** erabili).

   a) Kalkulatu **π=0** arauaren araberako **S** soluzioa: P_S, Q_S, eta mozkinak **(1,5 puntu)**

4. Beheko grafikoan monopolio batean egoera jasota dago.

a) Grafikoan argi adierazi **M** monopolioko soluzioaren eta **π=0** arauaren araberako **S** soluzioaren puntuak (**0,50 puntu**).



b) Grafikoan jasotako datuen arabera, kalkulatu **M** soluzioan merkatu boterea, **LI** (%). Argi adierazi erabilitako **formula eta datuak** (**0,50 puntu**).

c) Grafikoan jasotako datuen arabera, kalkulatu **S** soluzioan **Kontsumitzailearen Soberakina**. Argi adierazi erabilitako **formula eta datuak** (**0,50 puntu**).

d) Zer dira **eskala-ekonomiak**? Labur azaldu (**0,50 puntu**)

e) "Zenbat eta handiagoa izan **eskariaren elastikotasuna** orduan eta handiagoa monopolista baten **merkatu-boterea**" Ados al zaude? Labur azaldu hitzez. (**0,50 puntu**)